



GORDEXOLAKO DULTZAINEA LA DULZAINA DE GORDEXOLA

DOMINGO ARZA LEKANDA:
ENKARTERRIKO AZKEN DULTZAINEROA
DOMINGO ARZA LEKANDA:
EL ÚLTIMO DULZAINERO DE LAS ENCARTACIONES



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

D

DOMINGO ARZA
LEKANDA: el último
dulzainero de Las
Encartaciones



Domingo Arzaren dultzaina

Dulzaina de Domingo Arza

Fueron múltiples los músicos que, durante siglos, alegraron y amenizaron las fiestas y romerías de Bizkaia. En Las Encartaciones hubo txistularis, dulzaineros, pandereteros y, más tarde, acordeonistas, guitarristas, etc...

Aún así, no son muchos los instrumentos tradicionales que han llegado hasta nosotros. Entre ellos, encontramos esta dulzaina que perteneció al que es considerado último dulzainero encartado, Domingo Arza, y que ha sido celosamente guardada durante años por su hija, María Luisa Arza, en su casa de Gordexola.


Pero para estudiar mejor este instrumento no nos podemos limitar al conocimiento tipológico del mismo ni a una descripción de sus características. También es necesario saber algo más de la persona que conseguía darle carácter musical, dotarle de vida y hacerlo importante.

D

DOMINGO ARZA
LEKANDA:
Enkarterriko azken
dultzaineroa

Domingo Arza Lekanda, "Dultzaineroa".
Ganbara Argazki Alkartea (Sodupe-Güeñes).

Domingo Arza Lekanda, "El Dultzainero".
Asociación Fotográfica Ganbara (Sodupe-
Güeñes).



Mendeetan zehar, asko izan ziran Bizkaiko jai eta erro-meriak poztu eta bizitu zituen musikariak. Enkarterrian txistulariak, dultzaineroak, pandero-joleak eta, geroago, akordeoi-joleak, gitarra-joleak eta abar egon ziran.

Dana dala, gure sasoirako arte heldu diran musika-tresna tradizionalak ez dira asko. Horreen artean, Enkarterriko azken dultzaineroaren, Domingo Arzaren, dultzaina hau daukagu. Haren alabak, María Luisa Arzak, euki dau gordeta Gordexolako etxean, urte luzez eta ardura handiagaz.

Baina instrumentu hau hobeto aztertzeko, ezin gara mugatu bere ezagutza tipologikora edo bere ezaugarrien deskribapenera. Gainera, musikea, bizitza eta garrantzia emoten eutsan personearen gainean be zeozer jakin behar da.

DOMINGO ARZA LEKANDA: la vida de un dulzainero

Domingo Arza Lekanda, “El Dulzainero”, nació en un caserío del barrio Altamira (Okendo-Araba) el 1 de junio de 1897, residió durante la mayor parte de su vida en el caserío Aretxederra (Gordexola) y falleció en La Calzada de Zubiete (Gordexola-Bizkaia) el 3 de febrero de 1981.

Además de dulzainero (tocaba la dulzaina con las manos en posición de izquierdas), fue pastor, agricultor, carretero, carbonero, empresario musical e incluso concejal de Gordexola antes de la Guerra Civil.



Luis Luciano Bonapartek 1888an egindako Euskal Herriko maparen xehetasuna

Detalle del mapa de Euskal Herria elaborado por Luis Luciano Bonaparte en 1888

Gordexola eta Okendo alkarren ondoan dagozan herriak dira, baina lehenengoa Bizkaian dago eta bigarrena Araban.

Gordexola y Okendo son pueblos vecinos aunque el primero pertenece a Bizkaia y el segundo a Araba.

1

Juventud y aprendizaje:

No sé sabe con exactitud cómo aprendió a tocar la dulzaina. Sus hijos le consideraban autodidacta aunque probablemente aprendió ejerciendo el oficio de pastor en Okendo cuando era joven (la dulzaina es considerada un instrumento puramente pastoril y, casi todos lo que la tocaron, lo fueron en algún momento). Es probable que fuese el propio dueño de las ovejas el que le enseñara a tocar aunque no se puede asegurar con rotundidad. Él mismo indica en una entrevista que le hicieron a los 81 años que aprendió de oídas, oyendo tocar a los “vascos” que venían a las fiestas de Okendo.

Con el apelativo “vascos” se refería, probablemente, a dulzaineros procedentes de la zona de Orozko y norte de Álava que hablaban en euskera, pues Domingo no era euskaldun aunque probablemente lo fueron sus padres o sus abuelos (en Okendo la desaparición del euskera se establece entre finales del siglo XIX y principios del XX).

Como él mismo señala en dicha entrevista, se hizo con una flauta de caña y, a los 15 años con una dulzaina de metal, que le duró hasta 1936, año en que se la robaron, probablemente en el período en que estuvo encarcelado en Bilbao.



D

**DOMINGO ARZA
LEKANDA:**
dultzainero baten
bizitza

Domingo Arza Lekanda, “Dultzaineroa”, Altamira auzoko (Okendo-Araba) baserri baten jaio zan, 1897ko bagilaren 1ean. Bere bizitzaren zatirik handiena Aretxederra baserrian (Gordexola) bizi izan zan, eta La Calzada de Zubieten (Gordexola-Bizkaia) hil, 1981eko zezeilaren 3an.

Dultzaineroa izateaz gainera (dultzainea joten eban, eskuak ezkerreko posizinoan ipinita), artzaina, nekazaria, burdizaina, ikazkina, musikearen munduko enpresa-gizona eta Gordexolako zinegotzia be bai, Gerra Zibila baino lehenago.

1. Gaztaroa eta ikasketea:

Ezin da ziur jakin zelan ikasi eban dultzainea joten. Haren seme-alabek inoen bere kabuz ikasi ebala, baina, seguruenik, gaztetan ikasi eban, Okendon artzain egoala (dultzainea artzainen instrumentutzat hartzen da, eta joten ikasi eben gehienak artzainak izan ziran inoz). Leitekeana da ardien jabeak berak irakastea dultzainea joten, baina hori ezin da segurtasun osoz esan. 81 urte gaz egin eutsien alkarrizketa baten esan ebanez, entzunda ikasi eban, Okendoko jaietara etorten ziran “euskaldunei” entzunda.

Seguruenik, “euskaldunak” izenagaz Orozko ingurutik eta Arabako iparraldetik etorritako dultzaineroak aitatu gura izango zituan. Hareek euskeraz egiten eben, eta Domingok ez, bere guraso edo aitite-amamek seguruenik bai egingo eben arren (Okendon, XIX. mende amaieraren eta XX. mende hasieraren artean desagertu zan euskerea).

Alkarrizketa haretan Domingok berak dinoanez, kanaberaz egindako txirula bat lortu eban eta, 15 urte gaz, metalezko dultzaina bat. Dultzaina horrek 1936ra arte iraun eutsan, urte horretan ostu egin eutsien-eta, seguruenik Bilbon kartzelan egon zanean.

2

Primeros pasos como músico popular:



Domingo Arza eta bere familia.
50-60ko hamarkadea (XX. mendea).

Familiak itxitako argazkia.

Domingo Arza y su familia.
Década de los 50-60 (s. XX).

Foto cedida por la familia.

Probablemente comenzó a amenizar las fiestas y romerías de su pueblo natal y alrededores desde muy joven (tengamos en cuenta que su primera dulzaina de metal la obtuvo a los 15 años).

Él mismo indica en la entrevista citada que, antes de residir en Gordexola, ya tocaba bailables los domingos por la tarde en la plaza de este pueblo. El baile terminaba con el toque de oración, tras el cual Domingo y el atabalero que le acompañaba volvían andando hasta Okendo.

Finalmente, en 1918, con 24 años de edad, casa con la vecina de Gordexola Isabel Beraza Gurrutxaga, trasladándose a residir al caserío Aretxederra (Gordexola), donde tuvieron nueve hijos.

Domingo continuó haciendo la misma vida que cuando residía con sus padres, compaginando sus diversos trabajos (agricultor, carbonero, carretero...) con la dulzaina.

Formó un grupo compuesto por él como dulzainero, Silvano Vadillo como atabalero y Donato Beraza cobrando a las parejas que bailaban una perrilla (10 céntimos) por baile (se cobraba a los chicos, las chicas no pagaban). Tocaba jotas, puerros, marchas, pasodobles y algún que otro chotis, estos últimos “a lo agarrao” algo que los mozos agradecían pues estaba prohibido por la iglesia, como recordaban constantemente los curas en los sermones de la misa de los Domingos.

3.

La madurez como músico popular:

En el año 1936 fue concejal en el área de Orden Público del Ayuntamiento de Gordexola y, un año después, a raíz de una denuncia, fue detenido y encarcelado un año en una cárcel de Bilbao.

Fue probablemente allí donde perdió, o le sustrajeron, su antigua dulzaina y donde conoció a Luis Arostegi “Luisito” con quien trabó amistad. Cuando salió de la cárcel volvió a Gordexola donde le volvieron a denunciar y, a raíz de ello, tuvo que escapar de nuevo a Bilbao. En la capital vizcaína trabajó con parejas de bueyes en el saneamiento del Hotel Torrontegi, residiendo, durante este tiempo, en casa del citado Luis Arostegi.

A tenor de las noticias que tenemos, debió ser Luis Arostegi, probablemente mecánico tornero de oficio, quien fabricó la nueva dulzaina de Domingo, objeto de estudio de este trabajo. Según el recuerdo que María Luisa Arza tiene de los comentarios de su padre, esta era mucho mejor que la que le robaron en 1937 pues aquella sonaba “a hojalata y era mucho más corta de medida”.

2. Musikari herrikoiairen lehenengo pausuak:

Seguruenik, gazte-gazterik hasi zan bere jaioterriko eta inguruetakoko jai eta erromerietan jotzen (kontuan euki daigun bere metalezko lehenengo dultzaina 15 urtegez lortu ebala).

Alkarrizketan dinoanez, Gordexolan bizi baino lehen be, domeka arrastietan, herri horretako plazan dantzarako piezak jotzen zituan. Dantza errezorako deiagaz amaitzen zan eta, horren ostean, Domingo eta beragaz jotzen eban atabalaria oinez joaten ziran atzera Okendora.

Azkenean, 1918an, 24 urtegez, Gordexolako Aretxederra baserrira ezkondu zan, bertako Isabel Beraza Gurrutxagagaz, eta bederatziz seme-alaba euki zituen.

Domingok gurasoakaz bizi zaneke bizimodu bera egin eban aurretantzean be, bere lanak (nekazari, ikazkin, gurdizain...) dultzainegaz buztartuta.

Taldea osatu eban: berak dultzaina jotzen eban, Silvano Vadillok atabala eta Donato Berazak txakur txiki bat (10 zentimo) kobretan eutsien dantzan egozan bikoteei, dantza bakoitxeko (mutilei kobretan jaken, neskek ez eben ordaintzen). Jotak, porruak, martxak, pasodobleak eta txotisak jotzen eban, azken horreek lotuan. Hori asko eskertzen eben hango neska-mutilek, eleizeak debekatuta eukan-eta dantza klase hori, domeketako mezetako sermoietan abadeek behin eta barriro gogorarazoten ebenez.

3. Musikari herrikoiairen helduaroa:

1936an Gordexolako Udaleko Ordena Publiko Saileko zinegotzia izan zan eta, urtebete geroago, salaketa baten ondorioz, atxilotu eta kartzelan sartu eben urtebetez Bilboko kartzela baten.

Seguruenik hantxe galdu eban, edo lapurtu eutsien, dultzaina. Eta hantxe ezagutu eban Luis Arostegi "Luisito", eta lagunak egin ziran. Kartzelatik urten ebanean, barriro joan zan Gordexolara, baina han atzera be salaketa bat ipini eutsien eta, ondorioz, Bilbora egin behar izan eban iges. Bizkaiko uriburuan, Torrontegi Hotelaren saneamentuan egin eban behar, idi pareakaz. Denpora horretan, lehen aitatu-tako Luis Arostegiren etxean bizi izan zan.

Daukaguzan albisteen arabera, seguruenik lanbidez mekanikari tornularia zan Luis Arostegik egin eban Domingoren dultzaina barria, hain zuzen be lan honen aztergaia dana. María Luisa Arzak aitari entzunda gogoratzen dauenetik, bigarren hau 1937an ostutakoa baino askoz be hobea zan, harek "latorriaren soinua eukalako eta askoz be laburragoa zalako neurriz".

Domingo Arza "Dultzaineroa" eta Lucas Sáiz "Matxakito"

Familiak itxitako argazkia.

Domingo Arza "El Dulzainero" y Lucas Sáiz "Matxakito"

Foto cedida por la familia.

Iñaki Arza, Domingo Arzaren semea. Bere aitagaz batera ibili zan urteetan, kajea eta akordeoia jotzen.

Iñaki Arza, hijo de Domingo Arza. Acompañó a su padre durante años tocando la caja y el acordeón.



Poco después, Domingo volvió a Gordexola donde le detuvieron nuevamente, pasando en la cárcel veinte días hasta quedar definitivamente en libertad.

Luis Arostegi también debió fabricar una dulzaina a Lucas Sáiz, apodado “Matxakito” y también conocido como “Luquillas” por su corta estatura o “Lucas de Burceña” (Barakaldo) por ser éste el lugar en el que residía.

Lucas Sáiz “Matxakito” era dulzainero y “tocador” de caja (tambor metálico) y fue el músico que acompañó a Domingo Arza el resto de su vida. No podemos asegurar si ya lo hacía antes de 1937 o fue en este período cuando comenzaron a tocar juntos. No obstante, pudieron conocerse en Sodupe, barrio de Güeñes muy cercano a Gordexola y lugar con el que Lucas Sáiz mantenía mucha relación ya que allí residía un hermano suyo.

Juntos formaron pareja durante muchos años, Domingo tocando la dulzaina y Lucas la caja. Poco después se incorporaron dos hijos de Domingo, Luis que tocaba la caja e Iñaki que tocaba la caja, batería y, sobre todo, el acordeón. Esporádicamente pudo acompañarles el hijo de Lucas Sáiz. A este pequeño grupo se les unían los cobradores, Ignacio Allende (Sodupe-Güeñes), “Txitxarro” (Elubbarri-Güeñes) y Fika (Güeñes).



Domingo eta bere koadrila Enkarterrietan, Aiara haranean (Araba) eta Burgos iparraldean ibili ziran batez be.

Biblioteca Nacional

El entorno más recorrido por Domingo y su cuadrilla fue el de Las Encartaciones, valle de Aiala (Álava) y norte de Burgos, territorio representado en este mapa de 1794.

Biblioteca Nacional

4.

De fiesta en fiesta: romerías, contratos, cobros, celebraciones...

4.1. El entorno geográfico

La vida del dulzainero y sus acompañantes se centraba, sobre todo, en los meses de verano, en los que iban de fiesta en fiesta amenizando con su música.

El territorio que abarcaba Domingo era amplio. Con su pequeña orquesta tocó por romerías de Las Encartaciones, Okendo y Llodio (Araba), valle de Aiala (Araba), entorno de Arceniega (Araba) y norte de Burgos (Espinosa, valle de Losa, Siones...). Esta era la zona que recorrían cada verano, no alejándose mucho más. En ocasiones, no obstante, podían llegar a puntos más lejanos como el Santuario del Oro en Murgia (Araba) o Sasamón, a 40 km. de Burgos capital. La zona más frecuentada fue, de todas maneras, Las Encartaciones (pueblos de la Margen Izquierda, Gordexola, Güeñes, Zalla, Galdames, Sodupe, Carranza, etc...).

Handik gitxira, Domingo Gordexolara joan zan atzera, eta barriro be atxilotu eben. Kartzelan hoge egun emon ostean, atzera libre itxi eben.

Luis Arostegik beste dultzaina bat egin ei eutsan “Matxakito” ezizeneko Lucas Sáizi. Txikia zan eta, halanda ze, “Luquillas” izenagaz be ezagutzen eben, edo “Lucas de Burceña” (Barakaldo), hantxe bizi zan eta.

Lucas Sáiz “Matxakito” dultzaineroa zan, eta kutxea (metalezko tanborra) be joten eban. Aurrerantzean, beti joko eban Domingo Arzagaz. Ez dakigu 1937 baino lehenago batera jotzen eben edo sasoi horretan hasi ete ziran. Dana dala, beharbada Gordexolatik hur dagoan Güeñeseko Sodupe auzoan ezagutuko ziran, izan be Lucas Sáizek hartu-emon handia eukan auzo haregaz, bere anaia bat hantxe bizi zan eta.

Bikotea izan ziran urte luzez, Domingo dultzaineagaz eta Lucas kutxeagaz. Handik denpora gitxira, Domingoren seme bi sartu ziran taldean: Luis, kutxeagaz; eta Iñaki, kutxea, bateria eta, batez be, akordeoiagaz. Aldian-aldian, beharbada, Lucas Sáizen semea be joango zan eurekaz. Taldetxo horregaz batera, kobradoreak joaten ziran: Ignacio Allende (Sodupe-Gueñes), “Txitxarro” (Elubarri-Gueñes) eta Fika (Gueñes).



Jairik jai: erromeriak, kontratuak, kobrantzak, ospakizunak...

4.1. Inguru geografikoa

Dultzaineroaren eta bere laguntzaileen jarduna, batez be, udako hilabeteetan gauzatzen zan, jairik jai ibiltzen ziranean, euren musikeagaz alaitasuna zabaltzen.

Domingok hartzen eban lurraldea zabala zan. Bere orkestratxoagaz, Enkarterri, Okendo eta Laudioko (Araba), Aiara haraneko (Araba), Artzeniega (Araba) inguruko eta Burgosekoko ipar aldeko (Espinosa, Losa harana, Siones...) erromerietan jo eban. Horixe zan uda guztietan ibiltzen eben ingurua, eta ez ziran askoz be gehiago urruntzen. Dana dala, batzuetan urrunago be heldu eitekezan, esate baterako, Murgiako (Araba) Oroko Santutegira edo Sasamónera, Burgos uriburutik 40 kilometrorra. Edozelan be, gehien bisitetan eben ingurua Enkarterrikoa zan (Ezkerraldeko herriak, Gordexola, Gueñes, Zalla, Galdames, Sopena, Karrantza eta abar).



La Roblako tren. Karl Wyrschek 1959ko martxoaren 28an Balmasedako biltegian egindako argazkia.

EuskoTrenen artxiboa / Trenaren Euskal Museoa

Tren de La Robla. Fotografía realizada en el depósito de Balmaseda por Karl Wyrsh el 28 de marzo de 1959.

Archivo EuskoTren / Museo Vasco del Ferrocarril

La Roblako tren erromerietara joateko gehien erabilten zan garraibideetako bat zan

El tren de La Robla fue uno de los medios de transporte más utilizados para acudir a los romerías

Se trasladaban de las formas más diversas, en carros, a pie, en autobús o en tren (destacando el tren de La Robla que les conectaba con numerosos municipios de Las Encartaciones y norte de Burgos).

Durante los tiempos de juventud, Domingo y Lucas debieron pasar largas temporadas fuera de casa, de romería en romería. Reflejo de esa vida son las palabras de la hija del “dulzainero”, María Luisa Arza: “...cada vez que mi padre volvía de tocar en las fiestas, había nacido un hijo...”.

En épocas posteriores, como recuerdan sus hijos, tocaban en fiestas durante varios días, volvían a casa y, poco después, volvían a marchar.

No tocaban únicamente en verano pues también era habitual hacerlo los domingos (principalmente en Gordexola), cobrando directamente a los participantes, para que los jóvenes bailasen “a lo suelto” y “a lo agarrao”.

4.2. Contratación de Domingo Arza y sus músicos:

Tanto Domingo Arza como otros músicos populares tocaban en romerías, fiestas o plazas de diversas formas. Podían ser contratados, podían pujar en una subasta o bien podían hacerlo de manera libre.

En el primer caso eran los propios alcaldes o las comisiones de fiestas los que contrataban a Domingo Arza y a sus acompañantes a cambio de una cantidad pactada de antemano. Existían diferentes formas de hacerlo:

- Por carta: Los ayuntamientos y comisiones de fiesta solicitaban los servicios de Domingo Arza mandando una carta al caserío Aretxederra.
- Contrato directo: En otras ocasiones se personaban directamente en el caserío con el fin de contratar a Domingo.
- Durante las propias fiestas: Mientras tocaba en un pueblo concreto, era habitual que los alcaldes o los responsables de la comisión de fiestas de pueblos vecinos realizaran un contrato verbal para que tocasen en él.

Güñesko plazan biribilketa

Biribilketa en la plaza de Güñes



Erromeria

Romería





Erromerian Santa Ana (Gordexola)

Romería en Santa Ana (Gordexola)

Era guztietan mobiduten ziran: burdiz, oinez, autobusez edo trenez (batez be, La Roblako trenean, tren horrek Enkarterriko eta Burgoseko ipar aldeko herri asko lo-tzen zituan eta).

Gaztaroen, Domingok eta Lucasek denboraldi luzeak pasauko zituen etxetik kanpora, erromeriaz erromeria. Bizimodu horren ispilu dira María Luisa Arzaren, dultzaineroaren alabaren, berbak: "...gure aita jaietatik etxera etorten zan guztietan, beste ume-ren bat jaiota egoan ordurako...".

Seme-alabek gogoratzen dabenez, egunak emoten zituen jaietan jotzen, gero etxera joaten ziran atzera eta, handik gitxira, barriro urteten eben hortik zehar.

Ez eben udan bakarrik jotzen, ze domeketan jotea be gauza normala zan (batez be Gordexolan). Holakoetan, parte-hartzaileei zuzenean kobretan jaken, gazteek dantza suelta eta lotua egiteko.

4.2. Domingo Arza eta bere musikarien kontratazioa:

Domingo Arza eta beste musikari herrikoi batzuek erromeria, jai edo plazetan jotzen ebenean, modu askotan kontratatzen ziran. Kontratua egin eikieen, eskaintzea egin eikien enkante baten edo modu librean jo eikien.

Lehenengo kasuan, alkateek edo jai batzordeek kontratatzen zituen Domingo Arza eta bere laguntzaileak, alde zurretik erabagiatako kopuru baten truke. Modu desbardinak egozan hori egiteko:

- Gutun bitartez: Udalek eta jai batzordeek Domingo Arzaren zerbitzuak eskatzen zituen, Aretxederra baserrira gutun bat bialduta.
- Kontratu zuzena: Beste batzuetan, baserrira bertara joaten ziran, Domingo kontratatuko.
- Jaietan bertan: Herri baten jotzen egoan bitartean, normala zan inguruko herrietako alkate edo jai batzordeetako arduradunek berbazko kontratu bat egitea, euren herrian jo eian.



A los músicos, además de abonarles la cantidad pactada, se les proporcionaba comida y alojamiento, aunque nunca se les alojaba a todos en la misma casa sino que eran repartidos en diversos hogares para distribuir entre los vecinos el gasto que esto suponía.

En el segundo caso, se obtenía el derecho a tocar tras participar en una subasta. De esta manera, las plazas y romerías salían a subasta y músicos de diversas procedencias y estilos (dulzaineros, txistularis, acordeonistas, pequeñas orquestas...) pujaban por quedarse con el derecho a tocar. A partir del momento en que ganaban la puja, sólo ellos tenían derecho a tocar y a cobrar a las parejas (se les colocaba un ticket para saber quién había pagado) en el lugar señalado. Esto era muy habitual en Gordexola, destacando la conocida romería de San Cosme (en el barrio de San Juan de Berbikez) donde Domingo llegó a pagar 3000 pesetas por la plaza de baile, cobrando a los mozos un real (25 céntimos) por baile.

El tercer caso era el más sencillo. No teniendo contrato de ninguna clase, los músicos se ponían a tocar y cobraban a la gente que bailaba. Como en el caso anterior, cada pareja debía ponerse un ticket para ser identificado y saber quién había pagado. Se cobraba únicamente a los chicos, como ya se ha comentado, quedando las mozas exentas (este era el gancho para atraer público al corro propio). En Gordexola, en determinadas épocas, el precio era de 10 céntimos (la perra chica) por baile.



Domingo Arza dultzainea joten Artziniegan (Araba).

Familiak itxitako argazkia.

Domingo Arza tocando la dulzaina en Arceniega (Álava).

Fotografía cedida por la familia

Musikariei, itundutako kopurua ordaintzeaz gainera, jatekoa eta lo egiteko lekua emoten jaken, baina ez etxe berean, ezpada etxe baten baino gehiagotan, gasta auzokideen artean bananduteko.

Bigarren kasuan, enkanteetan lortzen zan joteko eskubidea. Modu horretan, plaza eta erromeriek enkantean urteten eben, eta jatorri eta estilo askoko musikariek (dultzaineroak, txistulariak, akordeoi-joleak, orkestra txikiak...) bertan parte hartzen eben, joteko eskubidea lortzeko. Enkantea irabazten eben momentutik, eurek baino ez eukien eskubidea aitatutako lekuan joteko eta bikoteei kobretako (txartel bat ipinten jaken, nork ordaindu eban jakin ahal izateko). Hori ohikoa zan Gordexolan, eta nabarmena zan San Kosmeko erromeria ezaguna (Berbikezko San Joan auzoan). Domingok 3.000 pezeta ordaindu zituan dantzarako plaza harengaitik, eta mutilei erreal bat (25 zentimo) kobretan eutsien dantza bakotxeko.

Hirugarren kasua zan sinpleena. Inongo kontratu barik, musikariak joten hasten ziran, eta dantzan egotzanezi kobrau egiten eutsien. Aurreko kasuaren moduan, bikote bakotxak txartel bat eroan behar eban, bikoteak identifiketako eta nork ordaindu eban jakin ahal izateko. Lehen esan dogun moduan, mutilei baino ez jaken kobretan, neskei ez (horixe zan norberaren taldera jentea erakarteko modua). Gordexolan, garai batzutan, prezioa 10 zentimokoa (txakur txiki bat) zan dantza bakotxeko.

4.3. Tocando en fiestas y romerías:

En las romerías y fiestas de verano en que eran contratados, el dulzainero y sus músicos solían ser recibidos en la estación del tren, en la de autobuses o a la entrada de los pueblos si llegaban andando. Nada más llegar, comenzaban a tocar y a recorrer las calles del pueblo. Detrás de ellos iba la gente bailando y riendo. Eran habituales las denominadas alboradas, generalmente realizadas tras llegar al pueblo o después de comer.

En las alboradas los músicos iban tocando de casa en casa y los propietarios les invitaban a pasar dentro, donde tocaban alguna pieza y eran agasajados con comida y alguna propina en metálico.

Un ejemplo paradigmático es la Fiesta de la Lechuga que se celebra en el barrio de El Castaño (Sopuerta), también denominada San Mauricio. Domingo y sus músicos llegaban en tren al barrio donde le esperaba la gente. Nada más bajar se ponían a tocar y la gente a bailar. El lunes (último día de la fiesta) salían las carrozas y con ellas se hacía un recorrido desde El Castaño hasta el barrio de Mercadillo (donde se encuentra el ayuntamiento). Durante el recorrido Domingo tocaba la dulzaina, parándose en determinados lugares ya establecidos: en la casa del Boticario, en el bar de “Botas”, en El Crucero, en la Casa Cuartel de la Guardia Civil y en el Ayuntamiento.

En el caso de los bailables que se realizaban en las plazas al aire libre, Domingo alternaba con la Banda de Música, de tal manera que esta última tocaba media hora y en los descansos lo hacía el dulzainero. En torno a ellos se formaban los famosos “corros” en los que la gente bailaba al son de la música.

Domingo Arza, jotea dantzaten korro baten. San Kosmeko erromeria (Gordexola). XX. mendearen erdikaldea.

Familiak itxitako argazkia.

Fotografía de Domingo Arza bailando la jota en un corro. Romería de San Cosme (Gordexola). Medios del siglo XX.

Fotografía cedida por la familia



4.3. Jai eta erromerietan jotzen:

Kontratetan zituen udako erronomia eta jaietan, tren edo autobus geltokian egiten eutsien harrera dultzaineroari eta bere musikariei, edo herriko sarreran, oinez baetozan. Heldu eta segiduan, herriko kaleetatik jotzen hasten ziran, atzera eta aurrera. Euren atzetik, jentea joaten zan dantzan eta barreka. Alboradak be ohikoak ziran eta, batez be, herrira heltzerakoan edo bazkalostean egiten ziran.

Alboradetan, musikariak etxerik etxe joaten ziran jotzen, eta ugazabek barrura joateko egiten eutsien konbit. Bertan, piezaren bat jo ostean, jatekoa eta diru apur bat emoten eutsien.

Erronomia. Dantza lotua

Egilea: J. Arrue

Romería. Baile "a lo agarrao"

Autor: J. Arrue



Adibide paradigmatico bat El Castaño (Sopuerta) auzoan egiten dan Letxugearen Jaia da, San Maurizio be deitzen dana. Domingo eta bere musikariak trenez heltzen ziran auzora, eta han jentea eukiten eben itxaroten. Bajatu eta segiduan, eurek jotzen eta jentea dantzan hasten zan. Astelehenean (azken jai eguna), karrozek urteten eben eta, horreekaz, ibilaldira bat egiten zan El Castaño auzotik Mercadillo auzora (bertan dago udaletxea). Ibilbidean zehar, Domingok dultzaina jotzen eban, eta aurretik erabagıtako leku batzutan geratzen zan: botikariaren etxean, "Botas"en tabernan, El Cruceron, Guardia Zibilaren kuartel-etxean eta udaletxean.

Plazetako dantzen kasuan, Domingo txandaka ibiltzen zan Musika Bandeagaz. Holan, bandeak ordu erdi jotzen eban eta, deskantsuetan, dultzaineroak. Euren inguruan "korroak" sortzen ziran, eta jentek musikaren erritmoetan egiten eban dantzan.

5

Canciones, aprendizaje y relación con otros músicos

Como la gran mayoría de músicos populares, Domingo Arza aprendía las canciones de oído pues no tenía estudios de música. Las canciones nuevas las obtenía de otros músicos en las romerías o fiestas o preguntando a sus hijos por las canciones de moda que se oían en la calle. El repertorio, no obstante, no solía ser muy amplio. Tocaba, como ya se ha señalado con anterioridad, jotas, puerros, marchas, pasodobles y algún que otro chotis.

No tenemos noticias de que mantuviera contactos continuos con otros músicos aunque, en Bizkaia, a las romerías solían acudir varios dulzaineros. Los puestos para tocar se solían subastar aunque, otras veces, era la autoridad, previo pago, quien señalaba el puesto donde tenía que tocar cada dulzainero. En estos puestos se formaban diversos corros que ocupaban parte de las campas, plazas o frontones donde se celebraban las romerías. Los dulzaineros solían usar pequeñas triquiñuelas para atraer al mayor número de personas, como poner a bailar a todos los miembros de su familia, aparentando que tenían más éxito que los demás, subirse a un banco o mesa para ser vistos desde lejos e incluso espiarse entre ellos por si había alguna pieza nueva que aprender.

No obstante, no tenemos noticias que relacionen a Domingo con otros dulzaineros a excepción de Lucas Sáiz. Los hijos recuerdan a algunos dulzaineros pero estos tocaban la dulzaina de llaves (típica en Burgos pero diferente a la que tocaba Domingo). Sí hay noticias de otros músicos populares con los que competían en diversas romerías por ganar las subastas, como los “carboneros” de Zorroza (uno de ellos tocaba el acordeón) y Ramón y León Meabe, de Begoña (Bilbao) que tocaban el acordeón y la batería.



Domingo Arza (makurtuta, txapelagaz) eta Lucas Sáiz (zutu-nik, txapelagaz eta dultzaina joten) Letxugearen Jaian (El Castaño-Sopuerta). 60ko hamarkadea (XX. mendea).

Familiak itxitako argazkia.

Domingo Arza (agachado, con boina) y Lucas Sáiz (de pie, con boina y tocando la dulzaina) en la Fiesta de la Lechuga (El Castaño-Sopuerta). Década de los 60 (siglo XX).

Fotografía cedida por la familia.



5. Kantuak, ikasketea eta hartu-emona beste musikari batzuekatz

Musikari herrikoiei gehienek antzera, Domingo Arzak entzunda ikasten zituan kantuak, ez eukan-eta musika ikasketarik. Kantu barriak beste erromeria edo jai batzuetako musikariengandik lortzen zituan, edo seme-alabei galdetuta ea zeintzuk ziran kalean entzuten ziran modako kantuak. Errepertorioa, baina, ez zan zabalegia izaten. Lehen be esan dogunez, jotak, porruak, martxak, pasodobleak eta txotisak bat jotzen eban.

Ez dakigu beste musikariren batek hartu-emon jarraiturik ba ete eukan, baina, Bizkaian, erromerietara dultzainero bat baino gehiago joaten zan. Joteko postuak enkantean ipinten ziran, baina, batzuetan, agintariek esaten eben dultzainero bakoitzak non jo behar eban, alde aurretik ordainduta. Postu horreetan korroak sortzen ziran, eta erromerietako zelai, plaza edo pilotalekuetako zati handiak beteten zituen. Dultzaineroek trikimailuak erabiltzen zituen ahalik eta jente kopuru handiena erakarteko, esate baterako euren familiako kide guztiak dantzan ipintea, besteek baino arrakasta handiagoa eukiela erakusteko. Edo banku edo mahai batera igotea, urrunetik ikusi eien. Eta, zergaitik ez, euren artean espie-tea, ikasi beharreko pieza berriren bat egoan jakiteko.

Halanda be, Domingoren eta beste dultzainero batzuen arteko hartu-emonen barri ez daukagu (Lucas Sáizegaz eukan hartu-emon albu batera itxita). Seme-alabek dultzainero batzuk gogoratzen ditue, baina hareek giltzadun dultzainea jotzen eben (tipikoa Burgosen, baina desbardina Domingok jotzen ebanagaz konparauta). Badakigu beste musikari herrikoiei batzuk lehiazten zala erromerietako enkanteak irabazteko, esate baterako Zorrotzako "ikazkinakaz" (euretako batek akordeoia jotzen eban) eta Begoñako (Bilbao) Ramón eta León Meabegaz. Azken horreek akordeoia eta bateria jotzen eben.

Sodupeko Musika Bandea (Güeñes). XX. mendean hasikerea.

Ganbara Argazki Alkarteak (Sodupe-Güeñes) itxitako argazkia.

Banda de Música de Sodupe (Güeñes). Principios del siglo XX.

Fotografía cedida por la Asociación Fotográfica Ganbara (Sodupe-Güeñes).

LA DULZAINA DE DOMINGO ARZA: estudio tipológico

Domingo Arzaren dultzaina

Dulzaina de Domingo Arza

Material:

Elaborada con latón niquelado, una de las combinaciones más usadas en Bizkaia en cuanto a material y a baño. Presenta, no obstante, un componente mayor de zinc que de cobre, hecho constatable porque el baño de níquel está oxidado en algunas zonas pero el latón sigue brillante.

Características:

1. Casquillo superior: Tiene un diámetro de 13,7 mm. Es la parte superior de la dulzaina. En él se encaja la fita o boquilla por la que sopla el músico.
2. Tubo interior: Tiene un diámetro de 7,5 mm en su parte más estrecha y 50 mm en su parte más ancha (la campana).
